# Banpiroak ez zirelako 'Dracula'-rekin hasi, 'Carmilla' itzuli dute

Maialen Berasategik J. Sheridan Le Fanuren eleberri ezagunena euskaratu du Literatura Unibertsala bildumarako

JON AGIRRE

DONOSTIA. Literatura gotikoa eta, bereziki, banpiroak aipatuz gero Bram Stokerren 'Dracula' aipatu ohi da, baina ez da «erreferentziazko» lan bakarra, ezta gaia jorratzen zuen lehena erez. Hala aldarrikatu zuten J. Sheridan Le Fanu (Dublin, 1814 – Dublin, 1875) idazlearen 'Carmilla' liburuaren itzulpenaren aurkezpenean. «Banpiroei buruzko literaturaren aitzindaria da», iritzi zuen Inazio Mujika Erein eta Igela argitaletxeetako ordezkariak. Izan ere, Stokerrek idatzi baino 25 urte lehenago plazaratu zuen. Maialen Berasategi Catalánek euskaratu du eta Erein eta Igelak kaleratu dute.

Estiriako baso sakon baten erdian kokatua dagoen gaztelu bakartia da nobelaren paisaia eta bertan «bizimodu patxadatsua» daraman Laura du protagonista. «Agian patxadatsuegia beretzat, hasieran esaten du bizimodu bakartiagoa zeramala, inbidia puntu batekin hirian bizi dutenenekiko. Baina oso kontu izan behar da zer hautatu eta desiratzen den». Izan ere, egun batean «patxada kolpean» amaitzen da. Inguruko eskualdean nekazari jende artean segidan zenbait amaalaba hiltzen dira ustezko izurri misteriotsu baten kausaz eta handik ihesean doan Carmilla misteriotsua helduko da. Gurdi istripua izanda zauritu eta amak han uzten du senda dadin. «Bi gazteen arteko harremana sakondu ahala, Laurak bere osasunaren gainbehera eta gertakari ilun eta kezkagarriak nabarituko ditu», aurreratzen du sinopsik.



Maialen Berasategi itzultzailea agerraldiaren aurretik F. DE LA HERA

**CARMILLA**
J. SHERIDAN LE FANU

Itzultzailea: Maialen Berasategi Catalán.
Argitaletxea: Erein eta Igela.
Orrialdeak: 152.
Prezioa: 17,5 euro.

## 'Carmilla' vs 'Dracula'

Bi liburuen arteko alderaketa «ohikoa bezain saihetsezina» dela esan zuen Berasategik eta bera ez zela «gutxiago izango». 'Carmilla'-k «berezitasunak» dituela esan zuen. Batetik, banpiroaren «izaera», Carmilla «normala» baita, «itxuraz xaloa, ahula, gaixobera, ezin ederragoa eta emakumezkoa». Pertsonaia bera «anbiguoa» dela azaldu zuen Berasategik, «toles handikoa eta kontraesanez betea», hainbeste non tarteka irakurleari «zail egingo zaion zergatik jokatzen duen horrela ulertzea».

Era berean, narratzaileak oso bestelakoak direla nabarmendu zuen eta «psikologiaren arloan ikuspegi berriak» sortzen dituela 'Carmilla'-k. Azkenik, emakumearen rola dela-eta, batzuek berritzailea dela defendatzen duten bezala –bi pertsonaiak «desiratzaile eta subjektu aktibo» direlako–, mahaigaineratu zuen emakumeen arteko txorakeria bezala» ere hartzen zela.

# Ciclo de encuentros de la Sade y fiesta del cine con entradas a 3,50 euros

DV

SAN SEBASTIÁN. Cuatro coloquios abiertos conforman el ciclo de encuentros organizado por Sade coincidiendo con su centenario. Los Cines Príncipe acogerán todos los encuentros que tendrán lugar tras la proyección de las películas 'Matrix', 'Pulp Fiction', 'Ghost' y 'Arde Mississippi' a lo largo del mes de junio.

La primera cita será mañana, a las 17.00 horas, con la participación de José Antonio Lozano, José Antonio Vergara e Ilargi Gardeazabal, que reflexionarán sobre el tema 'Futuro distópico' tras la emisión de 'Matrix'. El lunes el turno será para la película 'Pulp Fiction' y posteriormente la crítica de cine Begoña del Teso y el escritor Harkaiz Cano participarán en el coloquio que llevará por título 'Zinema, morala eta pop kultura', que será en euskera.

El inicio de este ciclo coincide con la celebración estos días de la Fiesta del Cine. Hasta mañana jueves, las salas comerciales rebajan el precio de las entradas a 3,50 euros. En el caso de Gipuzkoa, Ocine Mendibil de Irun, Niessen de Errenteria, Antiguo Berri, Príncipe y Trueba de Donostia, y Cinesa Luxe de Garbera y Urbil se han sumado a la iniciativa (en los cines LUXE la entrada costará 4,90).

# Cristina Iglesias estará representada por la prestigiosa galería de arte Hauser & Wirth

I. G.

SAN SEBASTIÁN. La galería suiza Hauser & Wirth, una de las más influyentes del panorama artístico contemporáneo, sumará a su prestigioso elenco a la escultora Cristina Iglesias. La artista donostiarra estará representada a nivel internacional por esta firma fundada en 1992.

La colaboración se hará visible públicamente muy pronto: del 19 al 22 de este mes, Hauser & Wirth presentará 'Entwined VI', la nueva obra escultórica de Iglesias, en la feria de arte contemporáneo Art Basel. Cabe destacar que esta misma galería gestiona también el complejo de Chillida Leku en Hernani.

Marc Payot, presidente de Hauser & Wirth, elogió la trayectoria de Cristina Iglesias, destacando su capacidad para crear un «lenguaje visual extraordinario, que resulta al mismo tiempo inesperado e inevitable». Payot subrayó especialmente el poder evocador de obras como 'Hondalea', la emblemática intervención en el faro de la isla Santa Clara. Según el presidente de la galería, la obra de Iglesias «reflexiona sobre las fuerzas naturales que solemos pasar por alto o relegar, revelando su poder transformador y apelando a lo más esencial de nuestra humanidad».